

EGITURAZKO ANALISIA

○ Helburua

Egiturazko analisia oldozmen kolektibo bat egituratzeko tresna da. Bere elementu eratzaile guztiak erlazionatzen dituen matrize baten laguntzaz sistema oso bat deskribatzeko aukera ematen du.

Deskribapen horretatik abiatuta, metodo horren helburua, aldagarri eragile eta menpekorik garrantzitsuenak agertaraztean datza eta haatik sistemaren aldagarriak funtsezkoenak ere.

• Metodoaren deskribapena

Egiturazko analisia, egiaztatutako eskarmentudun aditu eta egilek osatutako lantalde batek egiten du, baina horrek ez du inola ere kanpoko "aholkulari" lirakekeen parte hartzerik alboratzen.

Metodoaren zati desberdinak honako hauek dira: aldagarrien zerrenda, aldagarrien arteko harremanaren deskribapena eta gako- aldagarri direnen identifikazioa.

1 Zatia: Aldagarrien zerrenda (Zati esploratzailean egindakoa izan da)

Lehen zatia, aztertutako sistema eta bere ingurua bereizten duten aldagarri-sorta zerrendatzean datza (bai barne- aldagarriak bai kanpokoak). Zati honetan zehar ahalik eta zorrotzena izatea komeni da inola ere ikerketa-gai litzatekeen aztarnarik inoiz alde aurretik ez kanporatuz.

Aزتutako sistemaren aktoreen ordezkari direla estimatzen den pertsonekin elkarrizketa bitartez aldagarrien zerrenda hori elikatzen joatea aholkagarri da.

Azkenean, aintzat hartutako sistemaren kanpoko eta barruko aldagarrien zerrenda homogenea lortzen da. Esperientziak, aztertutako sistema zedarritzeko behar den besteko denbora izanez, zerrenda horrek 70-80tik gora aldagarri ez dituela izan behar erakusten digu.

Ezinbestekoa da aldagarrien azalpen zehatza: analisiaren jarraipena erraztu egiten du eta aldarri horien arteko harremanen kokapena ere eta horrek edozein oldozmen prospektiborako beharrezko gaien "oinarria" eratzea ahalbidetzen digu. Aldagarri bakoitzarentzako definizio zehatza ezartzea gomendatzen da, bakoitzaren iraganeko bilakaera ezarri, bilakaera hori sorrarazi duten aldagarriak identifikatu, euren egungo egoera zedarritu eta etorkizuneko etenak edo joerak agerrarazi.

2 Zatia: Aldagarrien arteko harremanaren deskribapena

Sistemaren ikuspegitik, aldagarri bat beste aldagarri batzuekiko duen harreman-ehunagatik existitzen da. Egiturazko azterketa ere sarrera bikoizdun taula baten edo zuzeneko harremanen matrize baten aldagarriak erlazionatzeaz arduratzen da. Aurretiaz aldagarrien zerrendan eta bere definizioan parte hartu duten hamabi lagunez osatutako talde batek egingo du, egitura- analisiaren matrizea bi-hiru egunetan zehar burutuz.


Gainerakoa kualitatiboa da. Aldagarri bikote bakoitzeko, ondorengo itaunak azaltzen zaizkigu: a aldagarriaren eta b aldagarriaren artean zuzeneko eraginezko harremanik ematen al da? Erantzuna ezezkoa baldin bada, 0 ezartzen dugu, eta alderantzizko kasuan, zuzeneko eraginezko harreman hori ahula (1), ertaina (2) sendoa (3) ala potentziala (4) den galdegin dugu.

3 ZATIA: GEMSABarekin gako-aldagarrien identifikazioa

Zati hau gako-aldagarrien identifikazioan datza, hau da, sistemaren bilakaerari funtsezkoak zaizkionak, lehendabizi zuzeneko sailkapen baten bitartez (egiteratzen erraza), eta geroago zeharreko sailkapen baten bitartez (GEMSAB* deitutakoa, Gurutzatutako Erasoen Matrizetarako Sailkapen batera Aplikatutako Biderkatzea). Zeharkako sailkapen hori matrize potentzian jaso ondoren lortzen da. GEMSABren bitartezko sailkapen horren egikaritzarako adituekin harremanetan jarri zaitezke, edota EUDELekin berarekin ere.

Ikus dezagun motrizitate/menpekotasun plano baten gainean proiektatzerakoan nola egituratzen diren aldagarriak eta Q2 sistemak zer egin dezakegu? galderari nola erantzuten dion, era honetan:

Funcionamiento del Sistema que explica Q2



Horrela :

- Goian, eskuinaldean sistema bakoitzaren gako- aldagarriak agertzen dira, estrategikoki erabat interesgarri direnak sistemarengan asko eragiten dutelako (oso motrizak dira) eta aldiberean eragingarriak izan daitezke (oso menpekotasunezko direlako)
- Goian ezkerrean oso motrizak diren aldagarriak ezarriko dira, baina menpekotasun oso gutxi edo ezerez dute, eta beraiekiko monitorizatu eta zaindu besterik ez dugu izango asko eragiten digutelako, baina eurak aldatzeko ezer edo ezer gutxi egin dezakegu
- Behean ezkerrean oso gutxi motrizak diren eta menpekotasun gutxiko duten aldagarri autonomoak azalduko dira eta horrek estrategikoki interesgarritasun oso gutxi ematen diote eta ondorioz ez diegu baliabide gehiegirik eskainiko.
- Ekimen bezala benetan interesgarri direnak lehen eta bigarren mailako palanka bezala agertzen direnak ditugu, aldi berean gako-aldagarriak, helburuak eta emaitzak mugitzen dituztelako.
- Behean eskuinaldean agertzen zaizkigun aldagarriak oso menpekoak eta oso gutxi motrizak dira, eta emaitza- adierazleak ezartzeko ikaragarri bikainak dira, sistemaren edozein aldaketaren inguruko aldaerari oso sentsibleak zaizkielako

Aldagarrien hierarkizazioaren erkatzea irakasbideetan prozesu erabat aberatsa dugu. Horrek aldagarri jakin batzuen garrantzia berrestea ahalbidetzen digu, baina era berean betekizun garrantzitsua duten zeharreko ekintzen arabera aldagarri jakin batzuk argitzea ahalbidetzen digute.

* GEMSAB: Gurutzatutako Erasoen Matrize Sailkapen bati Aplikatutako Biderkatzea; 1972 eta 1974 bitartean M. Godet-ek J.C. Duperrin-ekin batera CEAn egokitu izandakoa da.

Tresna eta mugak

Egiturazko azterketaren lehendabiziko interesa taldearen baitan oldozmena sustatu eta sistema baten jarreraren intuizio-kontrako arloez gogoeta eginaraztean datza. Emaitza horiek ez dira inoiz hitzez hitz hartutakoak izan behar, helburua, esan den bezala, gogoeta eginaraztea baizik. Argi dago Gemsab-en emaitzen irakurketa bakar eta "ofizial" bat bakarrik ez dagoena eta komenigarria da taldeak bere iritzi propioa izatea.

Mugak, lehen zatian zehar egindako aldagarrien zerrendaren izaera subjektiboarekikoak zein aldagarrien arteko harremanak ere (horregatik interes handikoa da sistemako aktoreekiko harremana) dira. Subjektibotasun hori, egiturazko azterketa bat errealitatea ez den ondo ezagututako egitatetik dator, baina ikusi ahal izateko medioa dugu. Tresna horren handinahia talde- oldozmenaren egituratzea ahalbidetzea da, bertan izan daitezkeen itzulgingurukatzeak ekidinez. Izatez, bai emaitzek bai sarrerako datuek ere (aldagarrien zerrenda eta matrizea) lantaldeak errealitatea nola aintzat hartzen duen adierazten digute, eta ondorioz lantaldeak beraz eta aztertutako sistemarekiko duen ikuspegia ere azaltzen digu. Izatez, egiturazko azterketa prozesu luzea dugu eta sarritan bere horretan helburu bilakatzen da, subjektua horretarako gertutzen ez den bitartean inola ere hasierarik eman behar ez zaion prozesua izanez.

Ondorio Praktikoak

Ezinbestekoa da egiturazko azterketa egiteko denbora jakin bat eskaintzea. Dena dago, jakina, lantaldearen lan martxaren eta eskainitako denboraren arabera.

Edozein oldozmen prospektibo erabakiak hartzera behartuta dauden pertsonak egindakoak izan beharko du.

Ezinbestekoa da aldagarriei buruzko hasierako lana: Horrela ez eginez, matrizearen betegarria era horretan ausazko eta baliagarritasunik gabeko egitate bihurtzen da lengoia komunik ez informazio sinesgarririk ez egotean.

Aldagarrien gurutzatzea eta matrizearen betegarria ideien talde- egituratzerako tresna denez banaka ezin egin daiteke, eta beraz lan taldearen baitan egin beharra dago.

Egiturazko azterketa udal-eremuan ekonomia- krisiarekiko arazoaz oldozmen sistematiko batetarako eskuragarri den hautaketarako tresna dugu. Lortutako emaitzen %80a nabarmenak dira eta hasierako intuizioa berresten dute. Bide ona eta arazoaren logika oinarritzen lagungarri ditugu eta batez ere intuizio-kontrako emaitzen %20ari balioa ematen die.